

15
URTEURRENA

ortzadar

Larunbata, 2013ko urtarrilaren 5a. 290 zenbakia

deia.com

euskal kulturaren kolore guztiak

KONKISTA AGERIAN

Nabarraldeko duela 500 urte
Nafarroan jazotakoak astindu
eta agerrarazi ditu 2012an

— 4-5. orrialdeak —

BEGIRADA ZUZENA

Iñaki Izquierdo argazkilariak
koloretan 'pentsatzen' du

— 6. orrialdea —



LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK

saski-naski



XABIER MENDIGUREN ELIZEGI

IRITZIA

Kristautasunak kutsatuak?

ITZULTZAILE Elkarteak sortutako *31 eskutik* blog guztiz interesgarrian Inigo Aranbarriri irakurri diot, berriki, gogoe-ta mamitsu bat, hitzek gainean daramaten pisu ideologikoari buruz. *Aita santua* esamoldetik abiatzen da artikulua, nola euskaraz ez daukagun beste hitzik eliza katolikoaren burua izendatzeko, eta nola guztiz izendapen baloratiboa den, eliza ama katolikoaren altzoan hazi eta hezi ez direnei eroso ez zaiena (gogoan daukat, esaterako, Aingeru Epaltzak *Erresuma eta Fedea* nobela-sortan sorturiko Joanen Mailu pertsonaia, Joana Albretekoaren eta kalvinder erreformaren jarraitzaile zintzoa, *Erromako printzea* esapideaz baliatzen dena, besteak beste).

Gure hizkuntza zenbateraino dagoen kristautasunaren ondareak zamatua, berehala konturatzeko da bat: *aitaren batean* esaten zaio zerbaite arin egiteari; *doministekia* deitzen diogu usin egiteari; eta beste hainbat adibide ekar genitzake, hizkuntzaren erabilera laiko baterako oztopo direnak. Etsenplu guztiak ez dira behialako ebanjelizatzearen ondorio, gainera. Juan Bautista Eguzkitza abade lemoarra XX. mendeko lehen erdiko idazle oparoenetako bat izan zen,

1935ean gai sozialei buruzko saiakera bat argitaratu zuena: *Gizarte-azua*: ugazaba eta langile arteko gora-berak; euskaldun jende xeheari azaldu nahi zizkion bizimodu modernoak ekarritako gatazka berriak, eta, hiztegi garbizalea boladan zegoenez, izen euskaldun jatorrak asmatzen zizkien ideologia arrotz horiei: adibidez, *sozialismoari*, euskaraz, *gizartekeria* zeritzon; ez dago galdetu beharrik zer iritzi zuen Eguzkitzak *keria* horri buruz.

Hizkuntza baten historia den bezalakoa da, hori ezin dugu ukatu ez ezkutatu; axola zaidana da zenbateraino baldintzatzen duen horrek hiztunen jardura (diskurtsoa, pentsaera, jokabidea). Aspaldi irakurri nion Sarrionandiari (*Marginalia* saiakera laburren bilduman, oker ez bana-go) guranierari buruzko gogoeta bat. Kontu eza-guna da espainiarren kolonizazioak Hego Amerikako hizkuntza gehienak ezabatu zituela; indartsu iraun duen hizkuntza indigena ia bakarra guraniera izan zen, gaurko Paraguay-n mintzatzen dena, hango agintea jesuitek zutelako eta espainola inposatu ordez bertako hizkuntza erabiltzea erabaki zutelako. Ba, Sarrionandiak zioenez, guranierak iraun bai, baina barrutik hustu egin omen zuten jesuitek, kris-

tautasunaren seilu eta marka guztiak ezarrita.

Ez dakit ezer guranieraz hori hala den ala ez ziurtatzeko, baina eztabaidagarria behintzat bada. Gure gizartea ere, hizkuntza bezala, guztiz kristaua izan da mendetan, baina nabarrena da nola ari den aldatzen ohitura eta balioetan azken 50 urteetan, onerako nahiz txarrerako. Bizimodu-aldaketok baino lehen ere, gure arbaso umil, apal eta otzan haiek, kristautasuna sinesmen dudaezintzat izan arren, gauzak ironiaz hartzen ere bazekitela esango nuke, hala ere. Hori pentsarazten dit behintzat zenbait hitzek hartu duten esanahiak: apaiz jende ilustratua Retorica ikasita etorriko zen herrira, sermoiak botatzera, baina herritar ezjakin haiek erretorika deitu zioten berba-jario alferreko eta maiz haserretuari; berdin, apaizgai eta sasiletraduen Gramatica txit gorena kalamatika bihurtu zen herri-usadioan: hizkera nahasi ulergaitza, alegia.

Geurea da honaino ekarri dugun eta gaituen motxila; ez dago lekuz kanpo barrukoa eza-gutzea, bertatik zer hartu eta zer utzi erabakitze, etorkizunean egin beharreko bidaian. Urte berri on.

Gure hizkuntza zenbateraino dagoen kristautasunaren ondareak zamatua, berehala konturatzeko da bat

Fikzioa

SALDUENAK

1. **Mussche**

Kirmen Uribe. Susa.

2. **Atzerri**

Mikel Antza. Susa.

3. **Ez naiz ni**

Karmele Jaio. Elkar.

4. **Urak dakarrena**

Toti M. de Lezea. Ttartalo.

5. **Ilargi Horia**

Joxemari Iturralde. Pamiela.

6. **Paper-festa**

Anjel Lertxundi. Alberdania.

Ez Fikzioa

1. **Independentziaren paperak**

Pako Aristi. Erein.

2. **Kolonbian bahituta**

Asier Huegun. Txalaparta.

3. **Saski bete intxaur**

Patziku Perurena. Alberdania.

4. **Aldamenekoa**

Ainara Gorostizu. Elkar.

5. **Barkamena, kondena, tortura**

Joxe Azurmendi. Elkar.

6. **Simplistak**

Hedoi Etxarte. Susa.

LIBURU DENDAK: Elkar, Auzolan (Iruñea)

ERAKUSLEIHOA

ELEBERRIA
'Urrezko orrazia'

Caizka Arostegi/Eider Eibar. Elkar. 174 orrialde. 16,50 euro.

ELEBERRIA
'Gaur zortzi'

Carmen Gisasola. Erein. 100 orrialde. 13,50 euro.

ELEBERRIA
'Zaindari ikusezina'

Dolores Redondo. Erein. 480 orrialde. 18,50 euro.

**Erraz ahazten ez den istorioa**

Ainhua arbasoen baserri zaharrera joan da egun batzuk igarotzera. Udazkena da eta basoa hamaika kolorez jantzita dago. Itxura guztien arabera, oporraldi lasaia izango da, baina gure protagonistari dena korapilatuko zaio antzinako argazki bat aurkitzen duenean. Liburu honetan fantasia eta errealtatea nahasten dira, magia eta xarmaz ziprindutako narrazio zirraragarri bat osatuz. Irakurlea hasieratik bukaerara arte harrapatuko du istorio honek. Erraz ahazten ez den horietako bat duzu ipuin hau.

Istorio latza, gutunen bitartez

Andoni preso dago Kordobako espetxean. Gaur, beste hainbat gutunekin batera, ezezagunen batek bidalitako gutun luze bat jaso du; emakume batek sinatuta dator. Gaur zortzi, gutuna idazten duen emakume horren alabak ihes egin du organizazio armatu batean militatzeko. Andreak luze kontatzen dio gutunean zehar organizazio horretan militatzen duen preso horri beraren eta alabaren arteko harremana, konpromiso politikoari konpromiso pertsonala aurrez aurre jarririk.

Intrigaz betetako polizia-eleberria

Intrigaz eta misterioz betetako eleberri eder bat. Amaia Salazar inspektoreak bi erronkari egin behar die aurre aldi berean: Baztango bailaran gertatzen ari diren neska nerabeen hilketak ikertu eta bere iragana gainditu. Idazleak trebezia handia erakusten du polizia-eleberrien kontalari gisa, eta herri honen idiosinkrasia ezagutza sakona, aldi berean. Detektibearen ikerketaren kontaketa eta pertsonaia bizi diren alegiazko mundu antropologikoa batzeko duen mai-sutasunak era guztietako irakurleak harrapatzen ditu.

ZALDI EROA



Editorial Iparraguirre S.A.


Zuzendaria: Bingen Zupiria
Ardura: Inaki Mendizabal Elordi (mendi@deia.com)
Kordinazio lana: Amaia Santana (asantana@deia.com)Diseinua: Jesús Santamaría
Maketazioa: Naroa Etxebarria
Portadako argazkia: Martinxo
Lege Gordailua: BI 1720-06

Gehigarri honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA **historia** · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK ·

Konkistaren erro sakonak, agerian

Gaztelak Nafarroa hartu zuenetik 500 urtera, konkistaren ondorioak uste baino sakonagoak dira. Nabarraldeko horiek denak astindu eta agertu zituen 2012an

 DABI PIEDRA



ASKO hitz egin da Espainiak Euskal Herria menperatzeko erabilitako estrategiaz, Pirinioen inguruan hedatzen erresuma zabala nola pasa zen mende gutxiren buruan Espainia eta Frantziaren barruko herri zatitu eta gutxitua izatera. Ohiko historiografiatik ihes eginez, gaur egun, konkista militarra aipatzen dute gehienek, batez ere Nafarroa Garaiko lurraldeen kasuan. Nabaralde elkarrekin, hain zuzen, lan luzea egin du konkistaren tesiaren alde, antzinako Nafarroako Erresumaren memoria berreskuratzen. Irailako kongresuan, baina, urrats bat aurrera egiteko unea zela ikusi zuten, konkista hutsa aztertzea nahikoa ez zelakoan, gertaera hark utzitako ondorioak batzeari ekin zioten, alor askotako adituen laguntzaz. Atea zabaldu dute, baina gaiak luzerako emango du.


“Herri bat konkistatzen denean, hemen eta edonon, martxan jartzen da akulturazio prozesua, herri konkistatuaren kultura eta hizkuntza ezabatuta errazagoa baita hura menperatzea”, dio Angel Rekalde Nabarraldeko zuzendariak. Horrela, Gaztelako eta Espainiako agintarien estrategian sartu izan da, sistematikoki, antzinako nafarren hizkuntza edota memoria ezabatzea ahalgaitza. Iazko iraileko kongresuan batutako adituek azpimarratu zuten, euskararen galerak badu independentzia galtzarekin zerikusia; gazteluak eraitsi zituztenean, Nafarroako estatuaren sinboloak ezkatutzea bide zen asmoa eta Gipuzkoako eta Arabako herritarrak goi nafarren aurka ibili izana ere ez omen da kasualitatea.

“Oinarrizko lana egin zen biltzarrean, egia esan, egun bakoitzean mini-kongresu bat egin genuen gai bati buruz”, azaldu digu Angel Rekaldek. Vianan egindako lehenengo ekitaldian, 2010ean, hasi zen Nabarralde konkistaren ikuspegi historikoa gizarteari eskaintzen, “orduan planteatzen genuen: konkista baketsua ala gerra izan zen hura?”. 2012an, baina, erronka handitu dute. “konkista militarra izan zelako frogak plazaratu ditugu, baina horren ondorioak ez dira aztertu orain arte”, dio Rekaldek, “historiografia ofiziala beste bide batetik baitoa”. Lau eguneko biltzar bat lau herritan antolatzeak ekarri dizkien mugak ahaztu gabe, aho-zapore gozoa utzi die esperientziak, 40 aditu eta 250 partaide baino gehiago batu baitziren egitasmoaren epelean. Era askotako erakunde, administrazio publiko eta elkarrekin laguntza ere eskertu du Rekaldek.

Irailaren 7an egin zen Euskal Herriko Historialarien Biltzarreko lehenengo jardunaldia, Arrasaten. Euskararen galerak konkistarekin zerikusirik ote duen aztertu zuten bertan Koldo Zuazo, Jean Louis Davant eta Iñaki Lasa hizkuntzalariek, ondorio garbiarekin: konkista militarren ostean hizkuntza errespetatu zen eta iraun zuen, baina kultura hegemonikoa kanpotik zetorren eta horrek, mendeen joanean, euskararen galera hauspotu zuen. Joseba Asiron historialari eta kongresuaren bultzatzaileak, Jean Louis Davanten *tsunamiaren* ideia azaldu digu: “1512ko konkista lurrikara isila izan zen, baina poliki-poliki *tsunami* erraldoi bilakatu zen eta, bi mende geroago, borbondarren politika zentralistarekin, euskararen lurraldea erabat txikitu zuen”. Koldo Zuazok, aldiz, Nafarroako Erresumaren zatitzea euskalkien sorburuetako bat dela aipatu zuen, batasun politikoa hautsita, batasun linguistikoa hautsi zela, alegia.

Gogoratu behar da iaz Nafarroako konkistaren 500. urteurrena gogoratu zela, 1512an Nafarroa osoa bere gain hartu baitzuten Gaztelak. Baina Nabarraldekoek sarritan oroitarazten dute konkista ez zela izan gertaera soil bat, prozesu luzea baino. Espainiak Nafarroa Garaia bereganatu zuenerako hiru mende zeramatzaten Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak Gaztelaren barruan. “Gaztela beti ibili zen euskal lurraldeen atzetik, 1512koa beste pausu bat izan zen, lehendik hasi-

tako bidean”, dio Angel Rekaldek. Hortaz, Nafarroako lurrik XVIII. mende ingurutik 1512ra beste euskal lur batzuekin muga izan zuten. Irailaren 8an, Leitzan, aztertu zen muga hori, garai hartakoek *Gaizkileen Muga* izendatu zutena. “Oso garbi eduki behar dugu 1200. urtea baino lehen mugarik ez zela han –dio Joseba Asironen–, Nafarroa etenik gabeko lurraldea zen”. *Gaizkileen Muga* indarrez ezarritako kontzeptua izan zen, “Nafarroak beti aldarrikatu bai-



Iazko kongresuetan atera ziren ondorioak gizarteratu nahi dituzte orain, besteak beste testuliburu berriak sortuz.

MEMORIA HISTORIKOA

Angel Rekalde Nabarraldeko zuzendariak memoria historikoaren garrantzia azpimarratu du, Nafarroako Erresumaren garapenaren eta konkistaren inguruan. “Baina baita beste gai batzuetan ere –dio Rekaldek–, memoria historikoa berreskuratzea ezinbestekoa da; euskaldunok historia aberatsa dugu, zabalitzen eta dagokion garrantzia ematen jarraitu behar dugu”.

tzen lurralde horiek itzul ziezazkiotela”. Muga alde bietakoak euskaldunak izan arren, alde bakoitzeko herritarren arteko amildegia sortu zuen bereizketa politikoak (kongresuan Floren Aozek aipatu zuen *baskongado gaiztoaren* mitoia, horren erakusgarri) eta, hain zuzen, 1512ko konkistan, euskaldun askok hartu zuen parte Nafarroako konkistan, baina Espainiako armadarekin. “Horra hor paradoxa, 1200ean konkistatutako lurraldeak erabiltzea 300 urte geroagoko konkistarako”, aipatu du Asironen, “baina argi dago partehartze hori ez zela boluntarioa izan, mehatxuak eta presioak egon ziren, agiriekin hala diotelakotz”. Geroago, Nafarroa Garaiko gizonak erabili zituen Gaztelak, Nafarroa Beherearen aurka egiteko, Asironen arabera. Nafarroa Behereak subiranotasunari eutsi zion, baina denborarekin Frantziak irentsi zuen.

Agoitzen, irailaren 14an, gazteluen suntsiketa aztertu zuen Nabarraldeko. Behin Nafarroa menpean hartuta, erresuma zaharraren defentsarako gazteluak eraitsi zituzten espainiarrek, baina ez helburu militarrekin, erakuntza zaharkituak baitziren, Joseba Asironen azaldu digunez: “Ordura arteko nafar legitimitatearen sinbolo ikusgarriak ziren gazteluak, nafar estatuaren ikur; suntsitu zituztenean argi eta garbi adierazi nahi izan zuten estatu hori desagertua zegoela, hilik”. Ondorio psikologikoak izan zituen gazteluak eraisteko erabakiak, militarrek baino.

Gazteluekin gertatu zenak, euskararekin edo euskaldunen arteko bereizketarekin bezala, konkista militarretik haratago doazen ondorioak ditu, belaunadiz belaunaldi errotzen direnak. Hain zuzen, Iruñean, irailaren 15 eta 16an, aztertu ziren ondorioak, hots, Nabarralderen biltzarren azkenengo jardunaldian. Joseba Asironen laburbildu duenez, “ondorio orokorra oso sinplea da: historiografia navarristak kontatu diguna gezurra dela”. Zehatzago esanda, “Nafarroaren konkista justifikatzen ezina izan zela ikuspuntu guztietatik, nafarren borondatearen aurka burutua”. Nafarroarentzat desastrea izan zen konkista, Asironen ustez. Angel Rekaldek ere uste bera du, eta dio historiografia ofizialak esan duenari aurre egiteko oinarria jarri dela kongresuan, baina, batez ere, konkista ulertzeko bidean mugarri bat ezarri dela, begiratzen den ikuspuntutik begiratzen dela ere, kontutan hartzeko: Nafarroako konkistak ondorio sakonak izan zituela, militarretik edo administratibotik kanpoko alor ugaritara hedatu zirenak. “Euskaldunok errealitate bat osatzen dugula argi geratu dadila nahi dugu, konkista ez da Nafarroa Garaiko kontua bakarrik, sasoi desberdinetan baina euskaldun guztioi eragin baitigu”.

Kongresu ezberdinek gizarrean ere nahikoa oihartzun izan dutela uste du Angel Rekaldek (agian 1512tik bost mendeko efemeride biribila bete delako), baina oraingoan herritarren debatea sortu dela nabaritu du. “Batez ere, Nafarroan bertan, jendea gai honekin interesatuta sumatu dut, nafarrek kontzientzia handia baitute beren historiaz”. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan auziari gutxiago erreparatu zaiola dio, seguruenek lurralde horietan nortasun nazionala gehiago lotzen delako hizkuntza eta kulturarekin, “hala ere, hor ere erantzuna izan dugu, jendea mugitu da”. Iparraldean ere izan dute oihartzuna: “Donapaleun egon ginen eta han ere erantzun zuten”. Rekalderen ustez, “neurri handi batean ulertu da hau denon historia dela”. Nafarroako konkistaren ondorioak ikertzea, dena den, luzerako lantegia izango da. “Guk hastapenak jarri ditugu, ea zer bide hartzen duen honek”, esan du Rekaldek, itxaropentsu. Joseba Asiron ere argi eta garbi mintzatu da horretaz: “Kongresuan oinarri teorikoa jarri da, orain errelato hau gizartera eraman behar dugu, kultura herrikoira eta, noski, gure seme-alaben testuliburuera. Horra hor 2013rako lehia interesgarria”.

OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

IKERKETA ‘1512’

Askoren artean. Txertoa.



Euskal lurraldeak eta Nafar estatua

SAIAKERA ‘De Noáin a Amaior’

Peio Monteano. Pamela. 240 orrialde. 20 euro.



Urte erabakiorren kronika

ELEBERRIA ‘Fernando el Falsario’

Pedro Esarte. Pamela. 240 orrialde. 20 euro.



Konkistaren gezurak eta hezurak

IPIUINAK ‘Nafarroako Erresumako Kronika ezZinezkoak’


Mikel Zuza. Pamela. 11 euro.



Egiaren fikzioa

SAIAKERA ‘Vasconavarros’


Jose Mari Esparza. Txalaparta. 890 orrialde. 45 euro.



Lurraldea eta identitatea

LEKUKOTZA ‘Navarra, 1510-1513’

Aitor Pescador. Pamela. 352 orrialde. 23 euro.



Itzaleko urteak agerian

SAIAKERA ‘Más allá de 1512’

Floren Aoz. Txalaparta. 196 orrialde. 17 euro.



Ordukoen eragina gaurkoan

Pixa hiru itsasotan batera

Pico Tres Mares tontorrean (Kantabria) esperientzia bitxi bat bizi dezakezu: zure likidoak Kantauri

itsasora, Atlantikora eta Mediterraneora bidaltzea giltzurrun kolpe bakar batez

PLATANOAREN egitura hirukoitza deskubritu duten pertsonei estimu berezia diet. Alegia: platano-xerra bati kosk egin, ahoan sartu eta mingainarekin xerraren erdi-erdian kontuz zapalduz gero, hiru zatitan banatuko da. Platanoak laban eta sardexkaz jaten dituztenek (!) landare musazeoen kortesia delikatuak mespretxatzen dituzte: fruituak ederki bilduta ematen dizkigute, ondo gordezko, erraz irekitzeko eta zikindu gabe jateko ezin modu egokiagoan. Are okerrago: esnob horiek fruituen simetria ezkutuaren berririk ere ez dute.

Pico Tres Mares gailurrean (2.175 m) platano bat jan nuen, Brañaviejako zirko kantabriarraren gainean. Mingain kolosal batek tontor hau zapalduko balu lurraren barnerantz, erpinetik hiru puska handi bereziko lirakete: Nansa ibaiaren arroa, Pisuergarena eta Ebroarena. Gailur honetan, asko edan baduzu eta maskuriari ondo eutsi badiozu zorrotada indartsu bat pilatzeko moduan egon arte, esperientzia oso berezi bat bizi dezakezu: hasi pixa egiten, pixkanaka jiratu buelta osoa eman arte, eta zure likidoak hiru itsasotara bidaltzea lortuko duzu giltzurrun kolpe bakar batez. Mendi hegal batean behe- ra, Nansa ibairantz irristatuko dira (Kantauri itsasorantz), beste batetik Pisuergara (hortik Duerora eta ondorioz Atlantikora) eta hirugarrenetik Ebroa (eta, beraz, Mediterraneora).

Mendi honen magalean jaiotzen baita Ebro ibaia, nahiz eta Plinio Zaharraren ohar batek, Aragoiko jotek eta komenentzia turistikoak iturburu ofiziala Fontibren kokatzen duten –erromatarren Fontes Iberis–, bailaran askoz beherago. Fontibren iturbegi eder bat sortzen da, Pilarko Ama Birjinaren estatuatxoa ondoan duela, eta urmael artifizial bat sortu dute baso txiki baten erdian, bidezidor, jatetxe eta turismo bulegoarekin. Honi Ebroren Iturburu deitzen diote: tururu!

Fontibreko Ebro honi laster batzen zaio Hajar ibaia. Baina Hajar ibaia urrutiagotik eta goragotik dator, Brañaviejako zirkotik. Hantxe dago benetan Ebro ibaiaren iturria, nahiz eta turistentzat eskura ez egon. Danubio liburuan, Amedeo izeneko sedimentologoak ibai horren benetako iturria nola bilatzen duen kontatzen du Claudio Magrisek. Azken ibaiadarrean gora abiatu, putzuz betetako zelai batera iritsi, bertara iristen diren ur jarioen jatorrirantz igo eta baserri bat topatzen du. Baserriko erreten bati zorrotada bat dario etengabe. Erreten horre-



BIDAIA KOADERNOA

ANDER
IZAGIRRE

anderiza.com



“Platanoaren egitura hirukoitza deskubritu duten pertsonei estimu berezia diet”

tara, harraska batetik iristen da ura. Harraska hori etengabe beteta dago, inork itxi ezin duen kanila baten urarekin. Kanila horretara berunezko hodi zahar bat iristen da lurpetik, inork ez daki nondik. “Eta zer gertatuko litzateke kanila hori itxiko balute?”. Magrisek Bratislava, Budapest eta Belgrado lehor irudikatzen ditu, hutsutako ibaiaren hondoan objektu zaharrak eta hezurdu- ra handiak agerian.

J-k eta biok, Magrisek bezala, gure ekintza txiki batek Logroñon, Tuteran, Zaragozan eta Tortosan izan zeza- keen eraginari buruz fantasiak izan genituen Brañavie- jan. J-k galtzetako kremailera jaitsi zuen...

artez
euskara zerbitzua



itzulpenak - hizkuntza aholkularitza - papergintza

944 480 000

posta@artez.net

www.artez.net